



4 ANTZERKIA

Gaztetxoek antzerkia izan zuten, larunbatean

Lasarte-Oriako txikienek, antzerki atseginaz gozatu ahal izan zuten, larunbat arratsaldean. Urriko kultur agendaren baitan antolatutako ekintzen artean, 'Magia lapurra' antzezlan eskaini zuten, Manuel Lekuonan, Txalo Produzioak eskutik. Dorleta neska gaztearen magiako zaletasunak agerian utzi zizkieten ikustera gerturatu ziren gaztetxoei. Txikiak dibertimenduzko arratsaldea igarotzeko aukera ezin hobea izan zen Lasarte-Orian.

5 BURUNTZALDEA

Ibilbideen eguna urriaren 23an izango da

Buruntzaldeako Mankomunitateak bederatzigarrenez ibilbideen eguna antolatu du. Herritarrek era osasuntsuan eremuko landa bide eta bide zidorrak eta beste herrietako paisaiak ezagutzeko aukera dute ekimen honi esker. Lasarte-Orian Euskararen 9. Maratoiarekin bat egingo du. Izan ere, urriaren 23an, igandean izango da. Aurten berrikuntza bat ere izango da. Herritarrek ibilbideak haien telefono mugikorretan eraman ahalko dituzte.



Arnaldo Otegi, Laura Mintegik eta Joxemari Agirretxek parte hartu zuten, ostiralean kultur etxean egindako mahai inguruan. Jendez gainezka egon zen aretoa.

Rafa Diezen askatasuna aldarri

'Rafa gure artera' manifestua aurkeztu zuten, ostiralean, Donostian.

Urriaren 13an zazpi urte bete ziren Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz, Rafa Diez herritarra, beste zenbait kideekin batera, atxilotu zutenetik. Egun, Bateragune kasuaren baitan, preso jarraitzen duen kide bakarra da.

Bateragune auzia ezin liteke ahaztu oraindik. Zazpi urte luze igaro dira jada, Espainiako Auzitegi Nazionalak, Ezker Abertzalearen aurka, Bateragune kasuaren baitan, atxilotetak egin zituenetik. Beste zenbait kideren artean, Rafa Diez herritarra izan zen atxilotuetako bat eta orduaz geroztik, preso hartutakoaren artean, LABeko idazkari ohia da oraindik ere preso dagoen kide bakarra.

Datorren abuztuaren 31ean beteko du Rafa Diezek zigor osoa, baina zigorra

berrikusi eta berehala aske utzi dezaten eskatu eta aldarrikatzeko, 'Rafa gure artera' manifestua aurkeztu zuten, ostiralean, Donostian.

Agerraldian, sakabanaketarekin amaitzea, larri dauden preso gaixoak askatzea eta zigorraren hiru laurdenak beteak dituzten presoaren kalera aldarrikatu zuten alderdi politiko eta sindikatu ezberdinetako kideek, hainbat gizarte eragilek eta norbanakoek.

Iñigo Iruin abokatuak ere, Rafa Diezen sententzia berrikusi dadila eskatu zuten,

baina Auzitegi Gorenaren esku dago orain, herritarren zigorra berrikusi eta kalera-tzea.

Ostiraleko agerraldian, Naike Diez, Rafa Diezen semeak ere hitz egin zuen. Euskal presoengan ezartzen den sakabanaketarekin amaitu behar dela aldarrikatu zuen, baita euskal gizarteak nahi duen normalizazio politiko eta soziala eskuratzeko pausuak eman daitezela eskatu ere. Honekin batera, Manifestuaren sinatzaileentzako esker hitzak izan zituen.

Asko izan dira manifestuarekin bat egin dutenak. Horien artean, Carlos Garaikoetxea eta Juan Jose Ibarretxe lehendakari ohiak, Arnaldo Otegi EH Bilduko kidea, Joxe Elorrieta ELAko

idazkari nagusi ohia, Joseba Agirretxea EAJko diputatua, Ainhoa Etxaide LABeko idazkari nagusia, Marian Beitia-rrangoitia EH Bilduko diputatua, Daniel Arranz Bizkaiko Gobernadore zibil ohia, Jose Mari Zamora Realeko jokalaria ohia eta Joxemari Agirretxe herritarra, beste hainbaten artean.

Mahai ingurua herrian

Ostiral iluntzean, Lasarte-Oriako Xirimiri Elkarteak antolatuta, mahai ingurua egin zuten kultur etxean.

Arnaldo Otegi, Laura Mintegi eta Joxemari Agirretxek parte hartu zuten Iñaki Petxarroman kazetariak gidatutako saioan.

Sakabanaketaz eta Bateragune auziaz mintzatu ziren.

www.multiplicasgipuzkoa.com

2 mō betaurreko graduatu erreflexuen aurkako leiarrekin
97€

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • EIBAR • ERRENTERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kale Nagusia, 15
 Tel.: 943 37 74 55
LASARTE

MULTIÓPTICAS
 lehena zerbitzu optikoetan

KULTURA

Beldurrak lantzen

Hurrengo saioa urriaren 25ean izango da

Lasarte-Oriako haurren irakurzaletasuna sustatzeko asmoz, ipuin kontalari saioak antolatu ohi dira Manuel Lekuona kultur etxeko haur liburutegian. Aurten Pello Añorga eta Kontukantoiko lagunak izango dira saioak zuzentzen. 4 eta 8 urte bitarteko haurrek milaka abentura ezagutu eta biziko dituzte hauen eskutik.

Ostegunean, Manuel Lekuona kultur etxeko haur liburutegian, ikasturte honetako lehen ipuin saioa izan zen. Ederki gozatu zuten haur liburutegira hurbildu ziren 4 eta 5 urte arteko txikiak.

Lehen egun horretan, Pello Añorgak haurren beldurrak landu zituen hainbat libururi esker.

Lehenik, animalia ezberdinak ezagutu ahal izan zituzten. Ausartenak hurbildu eta ukitu ahal izan zituzten, batzuk lehoiaren ahutzetan sartu zuten burua.

Beste batean, Zapatagorri neskatoaren istorioa ere entzun zuten. Otsoan sinesen ez duen haur baten kontakizuna dugu. Honi esker, basoan barrena ibili ziren etxeko txikiak eta otso beldurgarri batekin egin zuten topo.

Barre algarak, harridura aurpegiak... 4 eta 5 urteko txikiak adi jarraitu zituzten abentura ezberdinak.

Saioak

Baina hau ez da ipuin kontalarien ataleko saio bakarra izango. Haur liburutegiko arduradunek jakitera eman



Adi-adi jarraitu zituzten Pello Añorgak kontatutako istorioak haur liburutegian bilduko txikiak.

dutenez, beste sei saio izango dira abendura bitartean.

Ipuin kontalari lanetan, Pello Añorga eta Kontukantoiko lagunak izango dira.

Honela, Pello Añorgak 4 eta 5 urte bitarteko saioa egingo du. Ostegunekoaz gain, azaroaren 17an eta abenduaren 19an ipuinak kontatuko ditu.

Kontukantoiko kideak, berriz, 6 eta 8 urteko haurrak

murgilduko dituzte ipuin eta kontakizunen munduan. Lehen saioa, urriaren 25ean izango da. Gainontzekoak azaroaren 10ean, azaroaren 24an eta abenduaren 14an izango dira.

Saio guztiak 18:00etan hasiko dira.

Programa honen helburua ume-umetatik irakurzaletasuna sustatzea dela azpimarratzen dute arduradunek.

Oharrak

Hau guztiaz gain, hainbat ohar jakitera eman dituzte haur liburutegiko kideak.

Honela oso garrantzizkoa da saio bakoitzera dagozkion adineko haurrak bakarrik hurbiltzea.

Horretaz gain, gogorazten da haurrak bakarrik egongo direla aretoan eta handik ezingo direla irten ipuin kontaketak dirauen bitartean.

Idatziz jasotakoa hitzez azalduz

Iñaki Lopez de Luzuriaga idazleak 'Euskaldunak eta karolingiar iraultza' liburuari buruzko hitzaldia eskaini zuen Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan, ostegun arratsaldean. Hiru urtez ikertzen aritu ostean idatzi du aipatu liburua Lasarte-Orian bizi den eta ofizioz itzultzaile den Lopez de Luzuriagak.

Hitzaldian zehaztu zenez, Londres eta Kalifornian egon zen bitartean ekin zion gaia lantzeari. Euskal eta europar identitatea sortu zen garaia aztertzen du liburua: "Ingeleseko Wikipedian sortutako eztabaida baten harira hasi nintzen gaiari buruz ikeritzen, materialismo historikoaren ikuspuntutik beti ere, eta



Hainbat herritarrek adi entzun zituzten Lopez de Luzuriagaren azalpenak.

ikusitua nuen hutsune asko zuela horren inguruan", nabarmendu zuen Lopez de Luzuriagak.

Liburuan jasotako garaiari buruzko hainbat datu historiko ekarri zituen idazleak

hitzaldira, eta kultur etxera bertaratu ziren herritarrek adi entzun zituzten Lopez de Luzuriagaren azalpenak.

Liburua Elkar dendan edo UEUren web orrialdean eskuratu daiteke.

Euskararen Maratoian laguntzaileak behar dira

Asteburu mugitua izango da Okendo plazan. 40 orduz jaia nagusituko da eta bertan mota guztietako ekintzak izango dira zortzikoteak gidatuta.

Ohi bezala, festa aurrera ateratzeko esku asko behar dira eta oraindik ez dira laguntzarako txanda guztiak osatu. Azken bultzada behar du Maratoiak.

Argazki lanak egingo dituzten herritarrek, otorduak zerbitzatu eta mahaiak jarri eta kentzeko, txosnan zerbitzari lanak egiteko edota Informazio gunean egongo diren herritarrek falta dira.

Hainbat txanda jarri dira on-line izena emateko eta hauetako batzuk berehala bete ziren arren, badira orain-

dik hainbat hutsune. Antolakuntzatik herritarrei dei egiten zaie festa honetan parte hartzera. Lagun taldean izena emateko aukera dagoela azpimarratzen dute.


Izena eman

euskararenmaratoia.eus web-gunean aukera jarri da txanda ezberdinetan izena emateko.

Pertsona bakarrak lagun taldearentzat har dezake txanda bat, soilik lagun kopurua zehaztu behar da, ez da bakoitzaren izen abizenik zehaztu behar.

Interneten moldatzen ez direnak Ttakunetik pasa daitezke izena ematera. Edozein zalantza argitzeko ere Ttakunera deitu daiteke 943 371 448 telefonora.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea

LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea**Argitaratzailea:**

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria

943 366 858/943 371 448

G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidar Azurmendi, Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odrizola, Maidar Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

BERDINTASUNA

Beldur Barik lehiaketa martxan da

12 eta 26 urte arteko gazteek parte hartu ahal dute lehiaketa honetan

Gazteek emakumeen aurkako indarkeria gaitzetsi eta hauen artean harreman libre, errespetuzko, parekide, dibertso eta ez sexistak sustatzeko asmoz, Beldur Barik lehiaketa jarri zen martxan duela urte batzuk. Honetan gazteek haien jarrera azaltzen dute arte-adierazpen mota ezberdinak erabiliz.

TXINTXARRI

Euskal Autonomi Erkidegoan eta Lasarte-Orian Beldur Barik lehiaketa martxan da. Gure herrian antolatzen den hirugarren aldia da aurtengoa.

Lehiaketa honen bitartez, emakumeek jasaten duten bereizkeria-egoerari aurre egiten dioten neska-mutilen arte-adierazpen mota oro onartu, baloratu eta bultzatuko da.

Baldintzak

Bi lehiaketaren arauak berdinak dira.

Lehiaketara 12 urtetik 26 urtera bitarteko gazteak aurkeztu ahal dira, baina Lasarte-Oriako sarietarako Lasarte-Orian errolatutakoak baino ez dira kontuan hartuko.

Adierazpen artistiko mota oro onartuko da, baldin eta ikus-entzunezko formatuan aurkezten bada: flashmob, kamera aurrean erretratutako

poemak edo irakurritako gogoeta-testuak, argazkiak, argazki-muntaiak, fotonobelak, lipdubak, dantza, film laburrak, animazio proiektuak, proiektuak edo artelanak bideoan aurkeztea, performanceak eta kaleko esku hartzeak, etab.

Parte hartzen duten proiektuek Beldur Barik jarrera islatu behar dute. Emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak gainditzeko, eta harreman libre, errespetuzko, parekide, dibertso eta ez sexistak eraikitzeke konpromiso pertsonal eta kolektiboa erakutsi behar dute.

Antolatzaileek azpimarratzen dutenez, kalitate tekniko edo artistikoaren gainetik, mezuaren kalitatea baloratu da, nesken ahalduzuetik gogoetak eta eztabaidak sortzeko gaitasuna, eta mutilen matxismoaren aurkako konpromisoa.

Lanak azaroaren 9a baino lehen aurkeztu behar dira.



2015 urteko Lasarte-Oriako Beldur Barik lehiaketako lehen eta bigarren mailako irabazleak Jesus Zaballos alkatearekin.

Sariak

Lasarte-Oriako sariak azaroaren 23an banatuko dira, Manuel Lekuona kultur etxeko auditorioan, 19:00etan.

1. kategoriako lehen bi sari-tuek, 12-17 urte arteko maila, 300 euro eta 150 euro eskuratuko dituzte.

18 eta 26 urte arteko sari-tuen kasuan, lehenak 300 euro jasoko ditu eta bigarrenak, aldiz, 150 euro.

Bestalde, azaroaren 26an, Bizkaiko Urduliz udalerrian ospatuko den Beldur Barik topaketan lehiaketa orokorren sari-epaia emango da.

Lehen mailako eta bigarren mailako irabazleek 500 euro eskuratuko dituzte. Aipamena lortzen duten lanek berriz, 300 euro.

Ikus-entzunezko ekoizpen onenak 300 euroko saria eta lanaren hedapena egingo da jaialdi desberdinetan.

Herriaren saria lortzen duen lanak 300 euro jasoko ditu.

Izen-ematea

Lehiaketa honetan parte hartu nahi duten pertsonak www.beldurbarik.org webgunean dagoen formularioa osorik bete beharko dute. Formula-

ria bete eta bidali ondoren, erantzun automatikoa jasoko dute, antolatzaileek jaso dutela baieztatuz.

Hala ere, antolatzaileek ohartarazi dutenez, lehiaketan parte hartzeko betekizun guztiak betetzen direla egiaztatu arte ez da lana Beldur Barik webgunean eta sare sozialetan erakutsiko.

Informazio gehiago eta lehiaketaren oinarri guztiak 943 363 958 telefonoan edo emakumezentroa@lasarte-oria.org helbidean eskuratu daitezke, baita Beldur Barik webgunean ere.

Berdintasuna sustatzeko gazte taldea

Nola egin indarkeriari aurre egiteko? Zer da matxismoa? Nire inguruko mutil batzuek jarrera txarra dute neskekiko... Amodio erromantikorik?

Horrelako galderei erantzuteko eta orokorrean gazteek izan ditzaketen zalantzak argitzeko ekimen berria martxan jarri nahi da Gaztelekuan.

Neska eta mutilen arteko berdintasuna sustatzeko gazte talde bat osatu nahi da Lasarte-Orian.

Urriaren 26an bilera

Talde hau osatzeko lehenengo bilera urriaren 26an, asteazkenez, 18:00etan izango da Gaztelekuan eta honetan parte hartzera deitu nahi dituzte herriko gazteak.

Ekimen berri honek belaunaldi berrien artean gizartean errotuta dauden zenbait estereotipo aztertu, landu eta ezabatzea du hel-



Gaztelekuan izango da bilera.

buru. Parte hartzea irekia dela gogoratzen dute.

Bestalde, martxan dago Gaztelekuan ere gazteentzako sexu informazio eta aholkularitza bulegoa.

Bi urte dira zerbitzu hau Gaztelekuan martxan jarri zela Emakumeen Zentroan eskaintzen denaren osagarri moduan eta ostegunero

18:00etatik 20:00ak bitartean, sexualitatea lantzen da gazteekin modu irekian.

Aurreko ikasturtean 159 gaztek erabili zuten zerbitzua hainbat kontsulta egiteko.

Bi urtetan guztira 279 kontsulta izan dira jasotzen direnak eta gaiei dagokionez, denetarik izan da.

LITERATURA

Irakurle txokoaren lehenengo saioa

Bihar abiatuko du herriko Irakurle txokoak ikasturte berria. 18:30ean izango da hitzordua Ttakinunean, Iñigo de Loyola kalean. Lehenengo saio honetan Ramon Saizarbitorien 'Lili eta biok' eleberria aztertuko da. Honetan Lili 15 urteko neska eta Faustino Iturbe psikologo ohi eta idazlearen istorioa kontatzen da. Ikasturte honetan ere Uxue Alberdiren gidaritza izango dute bertan biltzen diren literatur zaleek.

Hurrengo hitzorduan, azaroaren 15ekoan, berriz, Alaine Agirreren 'X hil da' lanak hartuko du protagonismoa. Kasu honetan, idazlea etorriko da Irakurle txokora herritarren inpresioak jaso eta solasaldian parte hartzera. Aipatu behar da parte hartzea irekia dela.

POLITIKA

Sorturen batzarra asteazkenean

Sortuk bere birfundaziorako prozesua hasi du eta herrian ere izango dira hainbat batzar militanteei informazioa eman eta aportazioak jasotzeko.

Lehenengo, asteazkenean, urriaren 19an, izango da Xirimiri elkartearen 19:00etan. Lehen saio honetan azalduko dira birfundazioaren nondik norakoak xehetasunez, eta ondoren, jendearen iritzia eta aportazioak ere lekua izango dutela aurreratu dute. Hurrengo batzarrak azaroaren 16an eta urtarrilaren 18an burutuko dira.

Horrez gain, parte hartzeko aurretik akreditatu behar da. Akreditazioa online, www.parteartu.sortu.eus webgunean egin daiteke, edo presentzialki urriaren 19tik azaroaren 23 bitartean, asteazkenean, 19:00etatik 20:00ak arte Xirimiri Elkartearen.

Benetako magoa ez zen lapurra

Haurrek 'Magia lapurra' antzezlanaz gozatu zuten, larunbatean, kultur etxean.

Lasarte-Oriako Udaleko Kultura eta Hezkuntza sailak antolaturiko kultur agenda egitarauaren baitan, 'Magia lapurra' antzezlanaz ikusteko aukera izan zuten, larunbat arratsaldean herriko gaztetxoek. Dorleta, Txomin eta Vladimir aktoreei esker, zenbait magia truko ikusgarriez gozatu ahal izan zen ordubeteko emanaldian zehar.

TXINTXARRI

Lasarte-Oriako Udaleko Kultura eta Hezkuntza sailak antolaturiko Urriko kultur agendaren egitarauaren baitan, antzerki obra izan zen larunbat arratsaldean, herritarren gozamenerako.

Magia lapurra' antzezlanaz eskaini zuen Txalo Produktzioak taldeak, Manuel Lekuona Kultur Etxean.

Ikuskizunean, Dorleta, Txomin eta Vladimir izeneko hiru pertsonaien istorioak taularatu zituzten; magiarako zituzten zaletasunak eta telepatiarako abilezia erakutsi zizkieten ikusleei.

Ilusio handi bat zuen Dorletak; mago laguntzaile izan nahi zuen. Horretarako, kasting batean izena eman eta gaitasun froga egitera etorri zen kultur etxeko aretoko oholtzara.

Ustez, mago batekin elkartuko zela pentsatuta, antzoki batean jarri zioten Dorletari hitzordua. Zerbait arraroa sumatu zuen iritsi bezain pronto, ordea; kastinga egin behar zion magorik ez zuen inon topatu, lehen unean.

Txomin izeneko mago plantak egiten ari zen lapur batekin egin zuen topo. Bazuen abilezia bat ordea Txominek; jendeari inor konturatu gabe gauzak lapurtzen trebea zen.

Dorletak ez zuen oso gustuko ustezko magoa eta susmo txarra hartu bazion ere, elkarrekin lanean hastea erabaki zuten kastinga egin behar zuen benetako magoari ziria sartzeko. Lanean ari zirela, benetako magoa azaldu eta orduan hasi zen magia ikuskizun zoragarria bezain ikusgarria. Ikuslea txundituko adina trikimailu ikusi ahal izan ziren antzerkiak iraun bitartean.

Hurrengo ekitaldiak

Urriak 21etik 30era, Lasarte-Oriako toponimia erakusketa izango da Antonio Mercero eraikinean.

Urriak 25ean, Agifes elkar-teak hitzaldia eskainiko du.

Urriak 27an, 'Retazos II' liburuaren aurkezpena.

Urriak 28an, 'Al final del túnel' filma emango da.

Urriak 30ean, 'Mi amigo el gigante' eta 'Tarde para la ira' filmak ikusi ahalko dira.



Mago laguntzaile izateko kastinga egitera etorri zen, Dorleta, Manuel Lekuona Kultur Etxera.



Emanaldia zehar, magia truko ezberdinekin txunditu zituzten ikustera gerturatu ziren herritarrak.

Urtero legez, udazken festa egin zuten, ostiralean, Zabaleta auzoan

Urteroko moduan, Udazken festa antolatu zuten, ostiralean, Zabaleta auzoan.

Udazkenari ongi etorri emateko asmoz, ekitaldi ezberdinak izan zituzten, aurtien ere, Zabaleta Auzolan Elkarteak antolatuta.

Ospakizunari hasiera emateko, Gurutze Irazusta Lasarte-Oriatarraren hitzaldia izan zuten lehenik. Gure gorputza eta diafreoaz mintzatu zen herritarra. Gorputzaren bitartez, arlo fisikoa, emozionala, mentala eta energetikoa bildu, ikertu eta orekatzen laguntzen duen metodologia da hain zuzen ere Diafreoa. Giharren uzkurdurak askatuz, hezurdurari eta artikulazioei berezkoa duten orekara bueltatzen laguntzea du helburu. Honekin batera, gure gorputzeko giharren uzkurdura horien jatorria atzeman, es-



Urtero moduan, udazken festa egin zuten, ostiralean Zabaleta auzoan. Hitzaldia eta sardin jan herrikoia egin zituzten, trikitilariak girotuta.



Julian Tokero

nahia ulertuta, tentsioen jatorria bilatu, eta zailtasunak gainditzeko baliabideak lantzea du oinarri diafreoak. Gorputz osoa lantzen du diafreoak, edozein min nahiz ezin egonetatik hasi eta

horien eragiletara heldu arte. Honekin guztiarekin batera, norbere indarrekin bat egin eta norbere bizi pozaren jabe egitea ahalbidetzen edo laguntzen du. Guztira, hogeit bat lagun izan ziren hitzaldia

entzun eta diafreoaz zerbait gehiago ikastera gerturatu zirenak herritarrak eta giro 'goxo' eta 'atseginean' burutu zuten saioa.

Hizketaldia amaitu ostean, ohikoa den sardin jan herri

koa egin zuten.

Honekin batera, Udal Musika Eskolako trikitilariak izan ziren ospakizuna girotzen. Eguraldi hotzari aurre egiteko, izan zen dantza egitera animatu zenik ere.

Buruntzaldeako ibilbideak mugikorrean

Urriaren 23an, Buruntzaldeako Ibilbideen eguna antolatu dute

Buruntzaldeako herrietako kirol arduradunek 2016ko Ibilbideen eguna aurkeztu zuten ostiralean. Aurten berrikuntza bat ere dakar: ibilbideak mugikorrean eraman ahalko dira.

TXINTXARRI

Buruntzaldeako herritarrek aurten ere eremuko bidezidor eta bide ezberdinez gozatzeko aukera izango dute urriaren 23an, goizeko 9:00etatik 14:00etara. Ostiraleko aurkezpenean Jesus Zaballos alkatea azpimarratu legez, "Lasarte-Orian Ibilbideen egunak Euskararen Maratoia-rekin bat egingo du. Hala ere, Lasarte-Oriako eta beste udalerrietako herritarren parte hartzea handia izatea espero dugu".

Jarraian, Karlos Altuna Kirol teknikariak Ibilbideen eguneko nondik norakoak azaldu zituen.

Herri bakoitzean, kontrola izango da, Lasarte-Orian Elizatze plazan. Bertan, argibideak

eman, txartelak banatu, zigilua jarri eta fruta banatuko da.

Ibilbideetan seinaleak eta panelak daudela azpimarratu zuen Altunak eta herri bakoitzak bere kolorea duela: Lasarte-Oria urre zaharra; Urnieta, berdea; Usurbil, laranja eta Andoain, urdina.

Aurreko urteetan lez, bi ibilbide eginez gero, oparia izango da, kantinplora bat. Andoain-Usurbil eta Andoain-Lasarte-Oria egiten duenek ez ezik, hauek zuzenean lortuko dute oparia.

Autobusa ere izango da 12:00etatik aurrera. Aginagan Mapiletik atera eta herri ezberdinetatik pasako da. Lasarte-Oriako Tajamar biribilgunean 12:15ean, 13:15ean eta 14:15ean izango da. Azken autobusa Urnietara iritsiko da 14:40ean.



Jesus Zaballos alkatea, Buruntzaldeako herrietako kirol batzordeburu eta teknikariak eta Rafa Cabanillas (urdinez) aurkezpenean.

Informazio guztia *buruntzaldea.eus* orrialdean aurkitu daiteke.

Ibilbideak mugikorrean

Eta aurten, berrikuntza modura, mugikorrean edo eskuan ere eraman ahalko dira ibilbide ezberdinak.

Rafa Cabanillasi esker, informazioa pdf moduan inprimatzeko, gpsan txertatzeko edo app moduan eskuratzeko aukera egongo da.

Cabanillasek azaldu modura ibilbide liburuetan oinarritua da guztia disenatzeko. Bideez gain, herri ezberdinetako interes guztiak ere agertzen dira.

Hau guztia ibilbideen gunean egongo da gaurtik aurrera.

"Informazio hau bide hauetan zehar ibili ohi ez denarentzat edo kanpoko jendearentzat oso onuragarria da", azpimarratu zuen Karlos Altunak.

Ostadarren deialdia

Udalak eta hainbat eragile eta erakunde aparta, herrietako mendi elkarteek ere parte hartzen dute ekimenaren antolakuntzan. Lasarte-Oriaren kasuan, Ostadar SKTk.

Taldeak Lasarte-Oria-Buruntza-San Roke-Andoain ibilbidea egingo du. Hitzordua 9:30ean, Lasarte-Oriako irteera gunean da. Herritarrak gonbidatzen dituzte honetan parte hartzera.

ZABALETA BERRI BIZIGUNEA



14 ETXEBIZITZA BERRI
ZABALETA BERRIN

2 LOGELA +12m²ko terraza
184.000 €tik + BEZ

3 LOGELA +16m²ko terraza
199.000 €tik + BEZ



URBIL MERKATAL GUNEA



ANBULATEGIA



BIDE GORRIA



HAURREN PARKEA



KIROLDEGIA



SANTA BARBARA

TERRAZAK ETXEBIZITZA GUZTIETAN, 100m²raino
BISTARIK ONENAK SANTA BARBARA ALDERA
ERABATEKO PERTSONALIZAZIOA

943 36 89 42
www.zabaletaberri.es

Infografia hau(ek) aldatua izan daiteke proiektu teknikoetan



KROSA.

Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoiaaren XXI. edizioa, prest

Jalguneko kideek eramango dute '1 dortsala'; patin-lasterkariak ariko dira, erakustaldi gisara

Urriaren 30ean jokatu den Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoiaaren XXI. edizioa prest dauka Ostadar SKTk. Ostiralean egindako aurkezpen prentsaurrekoan eman zuten berrikuntzen berri: esaterako, patin-lasterkariak ariko direla aurten lehenengoz, erakustaldi modura.

TXINTXARRI

Urriko azken igandean, hilak 30, jokatu da aurtengo Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia. Hainbat egun eta orduz antolakuntza lanetan ibili ostean, Ostadar SKTk finkatu ditu XXI. edizioaren nondik-norakoak.

Ostadarreko kideek eta Jalgune Elkarteok eskaini zuten prentsaurrekoa ostiral arratsaldean, giro ederrean. Azken horiek aurtengo krosetako kamisetak jantzi eta 1 zenbakidun dortsalak hartu zituzten eskuetan. "Azken urteetan emandako laguntza eskertzeko modu egokia iruditzen zaigu aitortza publiko hau; etorkizunean elkarlanean segitzeko gonbita ere bada. Hala ere, Jalguneko gazteekin aisialdian egiten duen lana goraiatu nahi dugu", adierazi zuten Ostadarreko kideek.

1 zenbakidun horren atzetik, beste ehunka dortsal ikusi

ahalko ditugu herriko kaleetan zehar urriaren 30ean. Adibidez, erakustaldi gisara parte hartuko duten patin-lasterkariak. Aurtengo edizioko berrikuntza nagusietako bat hori izango da. "Froga moduko bat izango da, etorkizunean lasterketa hori antolatu ahalko dugun ala ez esango diguna", zehaztu zuten antolatzailerak. "Maila oneko 30 bat lasterkari gonbidatuko ditugu; aurten ezingo du edonork bertan parte hartu; ikusiko dugu datozen urteetan izen-ematea zabaltzen dugun ala ez".

Krosaren ezaugarriak

Azken urteetan egin bezala, lasterketa 10:30ean hasiko da, Frutas Ruiz paretik. Gurrildun-aulkietan ariko diren lasterkariak bi minutu lehenago aterako dira, eta minutu t'erdi patin lasterkariak. Helmuga, beti bezala, Okendon. Ibilbidean ere ez da moldaketarik; 10.500 metro ditu luze.



Jalgune elkarteok kideak (1 zenbakidun dortsalak eskuetan dituztela) eta Ostadar SKTkoak elkartu ziren ostiralean.

Korrika Festan aldaketak

Ostadar SKTk aditzera eman zuenez, Korrika Festa edo Kros Txikiko lasterketen ordena aldatu egingo dute aurten: infantil eta kadeteak izango dira iruten lehenak. Ondoren, 2011n jaiotako txanda izango da, eta horrela, 2005era ailegatu arte. Adinaren arabera izango da distantzia: 100, 150, 400, 800 edota 1.200 metro.

Hasiera-orduan ez dago moldaketarik: 12:15. Izen-ematea ez dute mugatuko anto-

latzailerak; parte hartu nahi dutenek kultur etxeko kafetegian eman beharko dute, 5 euroren truke.

Izena emateko aukerak

Iaz bezala, krosetan parte hartu nahi duen orok bi bide dauzka horretarako. Joan daiteke kultur etxera. Ostegunean irekiko da bertara joateko epea, 28ra arte; 17:00etatik 20:00etara arteko izango da ordutegia. 29an, berriz, Mitxelingo frontoian egin ahalko da, goiz eta

arratsalde. Bestela, sarean egin nahi dutenek, www.ostadarskt.eus eta www.sailkapenak.com web orrialdeak dituzte eskura.

Ostadarreko bazkide direnek 8 euro ordaindu beharko dituzte; ez bazkideek, 12. Lasterketa egunean apuntatzen diren guztiek, berriz, 20.

30ean edo bezperan hartu beharko dira dortsalak eta kamisetak, Michelingo frontoian, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:30era, edo 9:00etatik 10:00etara.

KARTINGA.

Aitor Manso kart gidari gaztearekin hitzarmena sinatu du Udalak

Udalak, edozein diziplinatan, ahal duen guztian lagundu nahi die herriko kirolari, baita kirol minoritarioagoak egiten dituztenei ere, Aitor Mansoren kasuan bezala". Jesus Zaballos alkatearen hitzak dira.

Ostegun arratsaldean, alkateak berak eta Aitorren aita Jose Manuelek -Aitorrek 16 urte ditu, eta adingabea da oraindik- laguntza-hitzarmena sinatu zuten, udaletxe berrian.

Kart gidari gazteak 1.800 euroko laguntza jasoko du, 2016ko Karting txapelketan parte hartzeko. Nafarroa, Burgos eta Santanderreko hainbat zirkuitutan jokatu dira lasterketak.

Mansok txiki-txikitatik darma kart artean. Urteotan frogatu du ibilbide oparoa daukala aurretik. Txus Alonso Kirol zinegotziak zehaztu zuenez, Euskal Herriko Karting txapel-

keta irabaztear da Aitor. Laugarren aldia litzateke.

"Udalak jartzen duen honorario aletxo honekin Aitorren ibilbidea hauspotzea espero dugu; hor daukagu Maialen Chourraut piraguiaren adibidea. Gaztetan pianoa jotzen hasi zen kultur etxean, eta elitiko kirolari izaten bukatu du eta urrezko domina irabazi du Rioko Jokoetan", adierazi zuen Zaballosek. "Gaur [ostegunean] kolaborazioa hasi dugu, eta nork esaten du etorkizunean Aitorrek 1 Formulako lasterketa bat irabaziko ez duenik?", gehitu zuen.

Aitorrek eta haren aita Jose Manuelek eskerrak eman zizkioten udalari, emandako laguntzagatik. Azken horrek zehaztu zuenez, kompetizioko kart bat moldatzeko 3.000 euro inbertitzera irits daitezke.



Aitorren aita Jose Manuel Mansok eta Jesus Zaballos alkateak sinatu zuten hitzarmena, ostegun arratsaldean.

Cotarreko lasterketa

Moldaketak laster egin beharko dituzte Aitorren autoan, iragan astean Cotarren (Aranda de Duero, Burgos) jokatuako lasterketan pistatik bota zuelako beste gidari batek. Kart-ak kalte dezente jasan zituen, bolantea okertzea kasu, baina

hala ere helmugaraino iristea lortu zuen, lasterketa txapelketarako puntuagarria zen eta.

Aitorrek 16 urte beteko ditu azaroan, eta Lasarte-Usurbil BHI institutuan ikasten du. Bukatzean, Ingeniaritza Mekanikoa ikasteko asmoa du, Barzelonako Eskola batean.

Eskola horretara joaten dira etorkizunean kompetizioko mekanikari izateko asmoa duten pertsonak.

Gidari ibilbidearekin jarraitzeko intentzioa dauka Aitorrek, eta ostegunean jakinarazi zuenez, kategoria berean beste urte batez lehiatuko da.

Agenda


Asteartea, 18:30ean, TtakunEnea



Historiaren arrastoak

Lasarte-Oriako irakurle txokoak Ramon Saizarbitoriaren 'Lili eta biok' eleberria aztertuko du, Uxue Alberdiren laguntzaz. Anaren bidez ezagutzen du Faustino Iturbek Lili, hamabost urteko neska bizkorra, baina nerabezaroaren krisialdian bete-betean sartua. Kalez kale garatutako solasean, gurasokeriarik gabe, eta neskaren galdera, zalantza eta jakin-minaren aurrean ulerbera agertzen delako idazlea, Otzeta eta Gerra Zibilaren garaiko sekretu baten jakitun egingo du Lilik.

zine forum sailean. Sarrera, 5,50 euro.



Igandea 30, 17:00etan

Haurren zinea atalean, 'Mi amigo el gigante' animaziozko filmaz gozatuko dute txikiek. Sarrera, 3,80 euro.

Igandea 30, 19:30ean

Helduen zinea atalean, 'Tarde para la ira' filma ikusgai. Sarrera, 5,50 euro.

Usurbil Solasaldia

POTXOENEA

Asteartea, 19:00etan

Hitzaldi-solasaldia Maialen Lujanbiorekin. Bat-bateko bertsoa eta sormen uneko mugak. Bertsoa, euskara eta sormena izango dira hitzaldiaren zutarrak. Noaua! KE-k antolatua.

SUTEGI UDAL LIBURUTEGIA

Asteazkena, 19:00etan

8. Euskarazko Literatura topaketa egingo da. Katixa Agirrerren 'Atertu arte itxaron' komentatuko dute eta Yolanda Arrieta Malaxetxebarria izango da elkarrietzeta honetan gidari.

POTXOENEA

Ostirala 21, 18:00etan

Patxi Izagirre psikologoa eta doluan adituak 'Dolua; Heriotzean ere haurrak partaide. Heriotzaren pedagogia eraiki behar dugu' hitzaldia eskainiko du.

Lasarte-Oria

Euskararen Maratoia

OKENDO PLAZA

Larunbata 22-Igandea 23

'Irten armairutik!' Euskararen 9. Maratoia ospatuko da gure herrian. Ekitaldiak, musika, otorduak... milaka sorpresa izango da. Urriaren 23an, 40 eguneko erronkari ere hasiera emango zaio.



Erakusketa

ANTONIO MERCERO ARETOA

Urriaren 21etik 29ra

Lasarte-Oriako toponimiari buruzko erakusketa ikusgai izango da.

Ipuin-kontalaria

HAUR LIBURUTEGIA

Asteartea 25, 18:00etan

KontuKantoik ipuin eta kontakizun saioa eskainiko du. 6 eta 8 urte arteko haurrei zuzendua dago.

Hitzaldia

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Asteartea 25, 18:00etan

Lasarte-Oriako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako kideen laguntzaz antolatuta,

AGIFES Buru gaixotasuna duten pertsonen eta senideen Gipuzkoako elkarrearen hitzaldia.

Liburu aurkezpena

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Osteguna 27, 19:00etan

Lasarte-Oriako historia oinarri duen 'Retazos II' liburuaren aurkezpena. Jose Luis Navarrok "Lasarte-Oriari buruzko dokumentu interesgarriak" aurkeztuko ditu.

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala 28, 22:00etan

Okendo zinema taldearen eskutik, 'Al final del túnel' filma aztertuko dute

Herritarren txokoa

1963. urtean jaiotako enafaria

Aurten ere 1963. urtean jaiotako kinto afaria egingo dute. Honako honetan, 'El Jardin' jatetxean, lehen 'Txitxardin Beltza' zen jatetxean antolatuko dute, azaroaren 19an, 21:00etan.

Aurretik, 20:00etan, Okendo plazan bilduko dira potetxo bat edo bi hartzeko asmoarekin.

40 euro izango da afaria, DJ eta guzti. Laboral Kutxako zenbaki honetan egin behar da diru sarrera, ES 36 3035 0036110361136871.

Neguko ordutegia kiroldegian

Neguko ordutegia dago indarrean herriko kirol instalazioetan.

Kiroldegiko guneak astelehenetik ostiralera 7:00etatik 22:30era erabili ahal dira. Larunbatetan 9:00etatik 20:00etara dago irekia eta igandeetan berriz, goizean 9:00etatik 13:00etara.

Michelingo Kirol guneari dagokionez, astelehenetik ostiralera arratsaldean egongo da irekia, 15:30etik 22:30era. Larunbatetan, berriz, egun osoan erabili ahalgo dira gune ezberdinak, 9:00eta-

tik 20:00etara, eta igandetan goizez bakarrik 9:00etatik 13:00etara.

Alboka Abesbatza


Lasarte-Oriako Alboka Abesbatzak herritarrak taldearen parte izatera gonbidatu nahi ditu. Horregatik entsegu batera hurbiltzeko animatzen ditu.

Entseguak Arantzazuko Ama elizaren azpiko lokalean dira astelehen eta ostegunetan 20:00etan. Abesbatzako kide izan nahi duten 15 eta 55 urte arteko herritarrek entsegetara gerturatu eta proba egin ahal dute "izan ere ez da zertan solfeorik jakin behar kantuan gurekin aritzeko".

Informazio gehiagorako 657 651 269 telefonora edota junta@albokaabesbatza.com helbidera idatz daiteke.

Hemeroteka

Duela 1236 ale



1998ko urriaren 25ean Ostadar KFK antolatutako III. Kros Herrikoa izango zen. Honen berri eta elkarteak aurrera eramandako beste ekintzei buruz hitz egiten zen erreportaje batean.

Kroseko berrikuntzen artean, gaur egun errotua dagoen kirolari elbarrituen lasterketa zegoen. TXINTXARRIKO erreportajea, azpimarratzen denez, Ostadarren oinarrietako bati esker, auzolana, froga arrakastatsua izatea espero zuten. Nahiz eta urte guztian zehar 8 pertsona lanean aritu, egunean 160 pertsona inguru arituko ziren lanean.

Honez gain, egun horretan bertan, Lasarte-Oria Bai! I. azoka antolatu zen. Honen bitartez, kultura, euskara eta zenbait arlotan lanean zeuden hamar elkarte, talde eta pertsonen postua jarri zuten Sagardotegi kalean. Ostadarreko kideek azaldu zuten, "Lasarte-Orian zer eskainia badagoela frogatu nahi da ideia berri honekin".

Era berean, Lasarte-Oria Bai! txartela eta Lasarte-Oriako komertzioekin egiten zuten elkarlanari buruz ere hitz egiten da erreportajea, baita Ostadarrek Eroskiren aurka jarritako errekursoari buruz ere.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 37 14 48 txintxarri@txintxarri.eus



Ostiralean, iluntzean eman zieten hasiera Sasoeta auzoko Jaizkibel Plazan, auzoko festei.

Sasoeta festetan!

Auzoko festak berreskuratu dituzte aurten.

Sasoeta Sasoian auzo elkarteak Lasarte-Oriako Sasoeta auzoko festak ospatu zituen ostiral eta larunbatean. Zenbait urte festak ospatu gabe egon badira ere, udalaren eta auzoko merkatariei zein ostalariei laguntzaz, berriro ere berreskuratu dituzte, aurten. Giro bikainaz gozatu zuten.

TXINTXARRI

Ekintza ugariz beteriko asteburua izan dute Sasoeta auzoan. Urte batzuk igaro dira festak antolatzen ez zituztenetik, baina aurtengoan, indarrak bildu eta berriro ere auzoko festak izan zituzten ostiral eta larunbatean.

Askotariko adin eta gustuen neurria egindako festa egitarau zabala izan zen.

Ostiralean, askari eder batekin eman zioten hasiera festari etxeko txikienei. Indarrak hartuta, Jose Martijaren omenez haurrentzako futbol

erakustaldia izan zen eta jarraian, patin eta txirringaren laguntzaz, ginkanaz gozatzeko tartea izan zuten.

Iluntzeko txupinazoak eman zion ordea hasiera ofiziala Sasoetako Festei. Gau Txori txarangak girotuta, festa batzordeko kideen eskutik, Pepita López auzotarrak piztu zuen lehen suziria. Koloretako globoak airean, gaztetxoek buruhandiengandik ihesi ibili ziren Andatza plazan, helduenak 'Ostirintxoaz' gozaten zuten bitartean.

Gauean, Rock kontzertuak izan zituzten Jaizkibel plazan eta DJ Cris eta Bon O Clock

taldeak berriro, Andatza plazan.

Larunbata ere giro onean igaro zuten auzotarrak. Goizean, batukada doinuek esnatu zituzten bizilagunak. Jarraian, haurrentzako tailerrak eta txaranga ibili ziren eguna girotu asmoz.

Eguerdian, bazkari herrikoa izan zen Jaizkibel plazan eta bazkal ostean, karaokean eta mahai jokoetan aritu ziren festaz gozatzera gerturatuta.

Arratsaldean, buruhandiak eta Rafafa magoaren magia ikuskizunaz gozatzeko tartea izan zuten gero.

Iluntzean, tortilla patata txapelketa egin zuten eta dantborrada ibili zen ondoren auzoan barrena. Ibai Berriak taldearen berbenarekin eman zieten amaiera auzoko festei.



Ostirala arratsaldean haurrentzako jokoak, areto-futbola eta askari gozoa izan ziren.



Txarangaren doinuek girotu zituzten festa egunak Sasoeta auzoan.



Batukada eritimoarekin esnatu ziren auzotarrak, larunbatean.



Larunbat eguerdian, paella jan zuten Jaizkibel plazan egindako bazkari herrikoian.



Gaztetxoek haur jolasak eta tailerrak izan zituzten larunbat goizean.